

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

5243

EBAZPENA, 2023ko azaroaren 14koa, HABEko zuzendariarena, zeinaren bidez zuzentzen baita 2022ko urriaren 6ko Ebazpena, euskaltegi pribatu eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuentzat 2022tik 2025 bitarteko ikasturteetarako dirulaguntzen deialdia aldatu zuena, 2022-2023 ikastererako gutxieneko ikasle-kopuruaren talde-ratioari dagokionez eta kitapenean kontuan izan beharreko urkilaren metodologiari dagokionez.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2.c) artikuluan xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak maila bereko xedapen baten bitartez zuzenduko dira, baldin eta nabarmenak ez badira, eta horiek zuzentzearen ondorioz, dokumentuaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzen bada.

Horrelako hutsak ikusi dira HABEko zuzendari nagusiaren 2022ko urriaren 6ko Ebazpenean, zeina 2022ko azaroaren 7ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu baitzen (212. zenbakia). Jarraian, huts horiek zuzentzen dira:

– Laburpenean, 2022/212 Laburpena orrialdean (4/3), eta Ebazpenaren idazpuruan, «2022-2023 ikasterterako» ezabatu behar da.

– 2022/4767 (3/2) orrialdean, Lehenengo puntuan, «2022-2023ko ikasterterako» ezabatu behar da.

Donostia, 2023ko azaroaren 14a.

HABEko zuzendaria,
JOKIN AZKUE ARRASTOA.